

# **Landa eremuko izaerari egokitutako Tokiko Agenda 21: Udaltalde 21 Pilotuaren emaitzak motibazio eta diagnostiko faseetan**

(Local Agenda 21 adapted to the rural environment: results of the Udaltalde 21 pilot project in the motivation and diagnosis phases)

Olaberria Azaldeggi, Garbiñe  
Tolomendi. Nafarroa Etorbidea, 6. 20400 Tolosa. tolomendi@euskalnet.net

Askasibar Bereziartua, Miren  
Paisaia, S.L. Agirre Miramon, 8. 20002 Donostia/San Sebastián.  
paisaia@paisaia.com

---

*Landa eremuak baditu hainbat berezitasun eta ezaugarri, Tokiko Agenda 21 ezarri aurretik, ohikoa den metodologia egokitzeko beharra nabarmentzen dutenak. Alkiza, Albiztur, Bidegoian eta Larraulgo udalerrriak biltzen dituen Udaltalde 21 Pilotuan, Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesuaren baitan motibazioa eta diagnostikoa burutzeko erabili den metodologia, eta lortutako ondorioak laburbiltzen dira.*

*Giltza-Hitzak: Tokiko Agenda 21. Landa eremua. Garapen iraunkorra. Udaltalde 21 Pilotua.*

*El medio rural posee características y particularidades que requieren de una adaptación de la metodología habitual en la implantación de la Agenda Local 21. Se resumen la motivación y metodología utilizadas en la realización del diagnóstico y los resultados obtenidos en el proceso de implantación de la Agenda Local 21 en los municipios de Alkiza, Albiztur, Bidegoian y Larraul reunidos en el proyecto piloto Udaltalde 21.*

*Palabras Clave: Agenda Local 21. Medio rural. Desarrollo sostenible. Proyecto Piloto Udaltalde 21.*

*Le milieu rural possède des caractéristiques et des particularités qui exigent une adaptation de la méthodologie habituelle dans l'implantation de l'Agenda Local 21. La motivation et la méthodologie utilisées se résument dans la réalisation du diagnostic et dans les résultats obtenus dans le processus d'implantation de l'Agenda Local 21 dans les municipalités d'Alkiza, Albiztur, Bidegoian et Larraul réunies dans le projet pilote Udaltalde 21.*

*Mots Clés: Agenda Local 21. Milieu rural. Développement durable. Projet Pilote Udaltalde 21.*

## 1. UDALTALDE 21 PILOTUAREN AURKEZPENA

Landa eremuko udalerrietan Tokiko Agenda 21 ezartzeko, bertako izaerari eta berezitasunei egokitutako metodologia lantzeko helburuarekin sortu da Udaltalde 21 Pilotu hau.

Udaltalde 21 hau osatzen duten lau udalerririk Alkiza, Albiztur, Bidegoian eta Larraul dira.

Proiektuan parte hartzen duten erakundeak ondokoak dira: Ihobe (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Saileko sozietate publikoa, ingurumen jarduketarako), Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentua, Mendikoi (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko sozietate publikoa, landa eremuko heziketa, sustapena eta garapenerako), Tolomendi (Tolosaldeako landa garapenerako elkarte), eta lau udalerririk.

Lan honek lau helburu izango ditu:

- Metodologia egokia aplikatuz, Tokiko Agenda 21en ereduaren arabera ingurumen kudeaketa iraunkorra ezartzea 4 udalerrietan.
- Landa eremuan Tokiko Agenda 21 ezartzeko metodologia aproposa garatzea, urrats bakoitzean bide desberdinak jorratuz eta ebaluatuz.
- Gida tekniko bat idaztea, antzeko ezaugarriak dauzkaten tokietan beren Agenda 21en ezarpenean aplikatu ahal izango dena.
- Tokiko Ekintza Planaren eta udalgaindiko beste plan eta programen arteko uztarketa egitea. Besteak beste, eskualdeko Landa Garapen Plana eta Landa Turismoa Bultzatzeko Plana hartuko dira kontutan.

Proiektua 2005eko urtarrilean hasi da; 2005eko abenduan bukatuko da lau udalerrietan Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesua, eta 2006ko lehen hilabeteetan idatziko da gida teknikoa.

Lantzen ari den metodologiarako proposamenak, Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesu osoan zehar biltzen ari den Batzorde Operatiboak egiten ditu. Batzorde Operatibo honetako kideak ondokoak dira: Ihobe, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentua, Mendikoi, Tolomendi, landa eremuko aditu bi, eta proiektuan aholkularitza teknikoa ematen duten Haizea Ikerketa, S.L. eta Paisaia, S.L. enpresak. Hemen aurkezten den komunikazioak Batzorde Operatiboak landutako metodologiaren gai garrantzitsuenak laburbiltzen ditu.

## 2. ZERGATIK DA BEHARREZKOA TOKIKO AGENDA 21 LANDA EREMUAN EZARTZEKO METODOLOGIA EGOKITZEA?

Eusko Jaurlaritzak 2000. urtean argitaratu zuen Tokiko Agenda 21 Euskadiko udalerrietan ezartzeko

eta garatzeko gida praktikoa (Inguru Consultores, S.A., 2000). Gida horretako sarreran esaten da:

...Euskadiko udalerrien neurriak baldintzatu egiten duela Tokiko Agenda 21en errealitatea Euskadin. Euskadiko hirietan bizi diren biztanleak biztanle guztien %81 dira, eta 40 udalerritan kontzentratuak bizi dira. Gainerako 389.629 pertsonak osaturiko landa biztanleria 211 udalerritan bizi da.

Arazoi hori dela medio, orain arte Tokiko Agenda 21 ezartzeko garatu eta aplikatu den metodologia hiriei zuzendua dago, eta landa eremuetan ekin diren saioetan ikusi da metodologia hau ez zaiola ondo egokitzen hiritarra ez den errealitate horri.

Hala ere, landa eremuak garrantzi estrategiko bizia du ondoko arrazoiengatik, besteak beste:

- Biztanleriari dagokionez dentsitate eta kopuru txikiak dituen arren, landa eremuak azalera handia hartzen du.
- Gizarteak bereziki baloratzen duen kultur eta natur ondarearen gordailu da.
- Nekazaritza eta abeltzaintzari lotutako erabileren etorkizunak neurri handian baldintzatzen du landa eremuaren balioen kontserbazioa.

Landa eremuko udalerrien beste ezaugarri batzuk metodologia berri bat lantzeko beharra nabarmentzen dute, hala nola:

- Udalek baliabide urriak dituzte, hirikoen aldean. Orokorrean, idazkaria izaten da udal langile finko bakarra, eta bestelako behar teknikoak aholkularitza kontratuen bidez betetzen dira. Alkateak eta zinegotziek ere udaletxetik kanpo izaten dituzte beren lanak. Guzti honek udal ekipoarekin harremana, bere inplikazioa, eta ekintzak martxan jartzeko gaitasuna zailagoa egiten du. Biztanleriaren dentsitatea txikia izanik, baliabide ekonomikoak ere mugatuak dira, baita hirian ohikoak diren beste zerbitzu asko ere.
- Biztanleriaren zati handi batek nekazaritza ustiatzean lanean jardutean, gehiengotik baserri mistoetan, ez du asti handirik, beraz oztopo berriak daude partaidetza bideratzeko.
- Herri txikietan ingurumen arazoak ez dira oso nabarmenak izaten. Gizarte eta ekonomia arloek, berriz, garrantzia berezia hartzen dute inguru honetan.
- Bizilekuen dentsitate baxua eta bizitokien sakabanaketa ematen dira, komunikazioan eta partaidetzan zailtasunak sortuz.
- Hizkuntzaren aldetik, euskara nagusitzen da, baina lengoaiari dagokionez, prozesuan parte hartu beharko duten askok ez dute euskara

batua menderatzen, maila teknikoan, bederen. Datu hau bereziki kontuan izan behar da komunikazioko ekintzak eta lan egitaraua lantzean.

- Teknologia berrien erabilera mugatua da oraindik, baina potentzial handia eskaintzen du Agenda 21 ezartzeko prozesuan.

### **3. TOKIKO AGENDA 21 EZARTZEKO OHIKO METODOLOGIA**

Proiektu hau lantzeko, ohiko metodologiaren eredu gisa aipatu den gida praktikoa erabili da (Inguru Consultores, S.A., 2000). Bertan jasotzen diren Motibazioa, Plangintza eta Diagnostikoa faseei dagozkien lanak burutu dira, komunikazio hau prestatzeko momentuan, Udaltalde 21 Pilotuan.

### **4. UDALTALDE 21 PILOTUAN LANTZEN ARI DEN METODOLOGIAREN DESKRIBAPENA, OHIKOAREN ALDEAN**

Orokorrean, esan dezakegu ohiko metodologiaren helburu berdinak bilatzen direla Udaltalde 21 Pilotuan, eta gida praktikoa planteatzen duena landa eremuko errealitateari egokitzeko interpretazioa egiten dela.

Aplikatzeko ari den metodologiaren deskribapen luzea egin beharrean, fase bakoitzeko lanetan, ohiko metodologiaren aldean nabarmentzen diren desberdintasunak azaltzen dira ondoren.

#### **4.1. Prozesu orokorrean**

Ohiko metodologian banatuta azaltzen diren arren, landa eremuan, motibazioa, diagnostikoa eta ekintza plana gainjartzen diren faseak dira. Horregatik, udal eragileekin burutzen diren bilerek eta harremanek hiru faseak burutzeko informazioa elkartrukatzeko balioko dute. Bereziki, motibazioa burutzea eta diagnostikoa lantzeko informazioa bilatzea, batera doazen prozesuak dira.

Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesuan erabili den hizkuntzari dagokionez, udalerrri hauetan bi ezaugarri biltzen dira: alde batetik, biztanleriaren gehiengoa euskalduna da, eta bestetik, udalaren baliabide ekonomikoak hiri handietan baino murrizagoak dira. Hau kontuan izanda, prozesu osoko lanak euskaraz burutzea erabaki da. Hala ere, biztanle erdaldunek parte hartzeko aukerak bermatu dira prozesuan zehar.

Prozesuko beste ezaugarri berezi bat proiektuan dedikazio osoz lanean ari den teknikariaren irudia da. Bere funtzio nagusia lau udalerrietan astero egun batez egotea da, lau udalerririk eza gutzeko, udal ordezkari eta langileekin harremana mantentzeko, eta herritarrekin informazioa elkartrukatzeko.

### **4.2. Motibazioan**

Eragile guztiekin, lehen kontaktua erabakigarria izango dela, eta hortik aurrerako harremana markatuko duela dakigunez, lehen mezuek sinpleak, zuzenak eta zehatzak behar dute izan. Horregatik, eragile guztien motibaziorako erabili den eskema sinple bat sortu da, Tokiko Agenda 21 zer den azaltzeko. Eskema hau 1 Irudian ikus daiteke.

Tokiko Agenda 21 zer den azaltzean, ezaugarri sozial eta ekonomikoan egin da indar batez ere, landa eremuko iraunkortasunean faktore hauek pisu handikoak direlako.

Aipatu den moduan, motibazioa orain arte proiektuak izan duen iraupen osoan zehar eman da, eta ez lehenengo hilabeteetan soilik.

Aalborgeko Gutunaren sinadura, prozesua aurreratuago dagoen momenturako uztea erabaki da, udal ordezkariak eta herritarrek Tokiko Agenda 21 zer den, eta zertarako balio dezakeen argi izan arte.

#### **4.2.1. Herritarren motibazioa**

Herritarrek motibatzeke orduan, lehen ekitaldi moduan bilera ireki bat antolatzea alferrikakoa izango dela ikusi da. Eraginkorra, herriko eragile nagusi eta dinamikoenak identifikatzea, eta horiengana hurbiltzea izango da, aurrerago bilera irekiak egin ahal izateko. Hau lan zaila da, udalerriko biztanleria ezagutzea eskatzen baitu. Prozesu osoko gakoetako bat izan da, eta ondo betetzeko oso garrantzitsua izan da proiektuan erabateko arduraldia izan duen teknikariaren lana, udalerririk bakoitzean astero egun bat han igaro duena. Identifikatu diren eragile hauen artean izan ondoko talde formal edo informaletako kideak daude: guraso elkarteak; festetako batzordeak; kultur elkarteak; kultura eta kirol ikastaro eta ekintzetako taldeak; eliza ekintzetako taldeak; taberna eta ostatuak; dendak; nekazal turismoak; enpresak; hezkuntza, gizarte eta osasun zerbitzuak; baserritarrak...

Herritarrengana hurbiltzeko beste modu bat proiektua burutzen ari den epean udalerrietan antolatzen diren hainbat ekitalditan parte hartzea izan da (kirol ekitaldiak, kultur ekitaldiak, festak, afariak...). Erabateko arduraldia duen teknikariak bete du funtzio hau.

Lau udalerrietan udalak herritarrekin harremanetan jartzeko etxex-etxe banatutako idatziak erabiltzen dituzenez, komunikaziorako bide hau erabiltzea erabaki da. Horrez gain, idatzizko prentsan herritarrek gehien erabiltzen dituzten komunikabideak erabili dira ere mezuak hedatzeko. Herritarrei foiletu baten bidez bidalitako lehen mezua ondokoa izan da: Tokiko Agenda 21 etorkizunari begira zer nolako herria nahi duten eztabaidatzeko prozesua dela.

#### **4.2.2. Udal ordezkarien motibazioa**

Landa eremuko udalerririk beren herritarrei hiriaren aldean duinak diren zerbitzu eta ekipamen-

duak eskaintzeko dituzten zailtasunak, eta Udaltalde 21 Pilotuko lau udalerrietako batzuetan gertutasun geografikoa kontuan izanda, beharrezkoa ikusi da lau udalerrri hauetako udal ordezkarien arteko harremanak bultzatzea.

Harreman hauek sendotzea prozesu osoan zehar mesedegarri izango dela pentsatu da, eta bereziki, Ekintza Planeko helburuak aurrera ateratzeko indarrak batzea erabakigarria izan daiteke. Erlazio hau sustatzeko, lau alkateekin txango bat egin da, beren udalerrietan abian jarri den antzeko prozesua burutu duten udalerrri bateko udal ordezkariekin solasaldi bat izateko.

### 4.3. Diagnostikoan

Diagnostikoa lantzeko garaian, eta txostena benetan erabilgarria izan dadin, hasieratik garbi ikusi da diagnostiko arin eta maneigarri bat osatu behar dela. Hasierako datu bilketa "Zer dago herri bakoitzean?" dokumentua osatuz egin da. Udalerrietan egon den teknikariak egindako datu base honek herri bakoitzak dituen zerbitzuak, azpiegiturak eta antolatutako egiturak jasotzen ditu hutsunak zeintzuk diren nabarmenduz. Dokumentu honen arloak ondokoak dira: osasuna, hezkuntza, garraioa, jarduera ekonomikoak, gizarte zerbitzuak, kultur azpiegitura eta jarduerak, elkarrekin, eliza, kirol azpiegitura eta jarduerak, intereseko gune eta elementuak, udalaren azpiegiturak eta funtzionamendua... Informazio horren emaitzak udalerriko ordezkariak edota udal langileak izan dira. Horrela eginez, hasiera hasieratik herriaren argazki azkarra lortzeaz gain, prozesua bultzatu eta elikatu beharko duten eragileak inplikatzeko hastea lortu da.

#### 4.3.1. Diagnostikoaren atalak

Diagnostikoa osatuko duten atalen zerrenda moldatzea beharrezkoa izan da herritarren eta udalen zuzeneko beharretan zentratzeko. Horrela, Diagnostikoan islatu den informazioa beren eguneroko bizitzaren kontzeptuarekin errazago lotu ahal izan dute herritarrek, Tokiko Agenda 21i errealitate kutsua hartzen lagunduz. Alabaina, ingurumen arloak iraunkortasunean oinarritutako plangintzan duen garrantzia ez da ahaztu behar. Hortaz, azken arlo honi lotutako zenbait atal ere kontuan hartu behar dira, besteak beste, herriko jarduera ekonomikoaren ingurumen eragina, hondakinen kudeaketa, uraren kudeaketa eta energiaren arloa. Mugikortasunari ere atal propioa eskaintzea komenigarri ikusten da. Bestalde, Tokiko Agenda 21en ohiko Diagnostikoetan badira hainbat gai landa eremuko herri txikiei begira zentzurik izan ez dezaketanak. Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari dagokion informazioa, hala nola, udalerriaz gaindiko antolamendu planak, Arau Subsidiarioak, Landa Garapen Plana, naturaguneen babeserako planak eta sustapen ekonomikorako planak, txostenaren arintasunaren alde, aurkibide nagusitik at ipiniko dira, txostenean eranskin modura laburturik jasoz.

#### 4.3.2. Diagnostikoaren estruktura

Aipatu den moduan, behar-beharrezkotzat jotzen da partehartzea bermatzeko Diagnostikoan jasotzen den informazioa herritarrentzat erakargarria izatea. Horretarako, datu objektiboez gain, Diagnostikoan bertan herritarren ikuspegia jaso da, eta hori lortzeko Motibazioan identifikatutako hainbat eragile elkarrizketatu da. Horrela, txostena bi zutabetan banatua dago: batean herritarren iritziak jasotzen dira, eta bestean datu objektiboak. Bi motatako datuen alderaketa modu erraz batean egin daiteke formatu honen bidez.

#### 4.3.3. Datu objektiboen bilketa

Datu objektiboen bilketa iturri desberdinetatik egin da. Berrito ere, astean behin udalean espresuki proiektuarekin loturiko teknikaria izateak erraztu du udalak luzatu beharreko informazioaren bilketa. Ez da ahaztu behar landa eremuko herrietako udal txosteko langileriak lan jardunaldi murriztuak dituela, eta diagnostikoa osatzeko beharrezkoak diren datuen bilketa hauen gain gelditzeak, prozesuarekiko izan behar duten inplikazioa erabat gaitzea ekar dezake, Tokiko Agenda 21 lan-zama bezala ikusteko arriskua baitago.

#### 4.3.4. Herritarren diagnostikoaren bilketa

Herritarren iritziak bi modutan bildu dira: eragilei-elkarrizketak, eta Herri Batzar irekiak. Lehenik, elkarrizketak burutu dira, eta horietan jasotako iritziekin diagnostikoaren lehen zirriborroa osatu da. Zirriborro horri udalak ekarpenak egin ondoren, Herri Batzarretan aurkeztu da etorri nahi izan duten herritar guztien ekarpenak jasotzeko. Honela, behin-betiko diagnostikoa osatu ahal izan da.

Motibazioa eta Diagnostikoa batera burutu direla aipatu da. Horren adibide garbia da udaletan egon den teknikariak herriko biztanleengana izan duen gerturatzea, herriko kultur ekitaldi, afari, eta abarretan parte hartuz. Hurbiltze fase honek, herritarrei Tokiko Agenda 21i buruzko informazio zuzena emateko aukeraz gain, teknikariari herritarrek eza-gutzeko aukera eman dio, eta hau elkarrizketak egiteko garaian abantaila izan da.

Herri bakoitzean elkarrizketatuen kopuruak mugatua izan behar duela gogoan izanda, elkarrizketatuak izango diren pertsonak ondo aukeratzeak berebiziko garrantzia du. Udal ordezkari eta teknikarien laguntza erabat beharrezkoa da lan honetan, udaletan egon den teknikariak herritarrekin izan dituen harremanekin batera.

Elkarrizketak egiterakoan funtsezkoa da herritarrek lasai hitz egiteko aukera izatea, ez beldurtzea. Hori posible izateko elkarrizketatzaileak ez du idatzizko gidorik eraman, eta elkarrizketatuak esandako ez du idatziz jaso momentuan. Honela, elkarrizketatuari ez zaio iruditzen esaten ari den guztia idatziz jasotzen denik. Honek lan bikoitza

suposatu die elkarrizketatzaileei: elkarrizketan zehar aipatzea komeni den gai guztien gidoia buruan izatea, eta elkarrizketa amaitu eta gero lortutako informazioa idatziz jasotzea.

Elkarrizketetan, berriro ere, Motibazio eta Diagnostikoko faseak gainjartzen dira; izan ere, euren herriaz duten ikuspegiari buruzko galderak egiteaz gain, aukera ezin hobea sortzen da herritarrei prozesuaren mamia azaltzeko, eta beren partaidetza bideratzeko, udalerrri bakoitzean sortutako den Herri Batzarrean parte hartzeko gonbidapena luzatuz. Elkarrizketak kasu gehienetan bakarkakoak izan dira, nahiz eta eragilea taldea den kasuetan, taldearenganako gerturatzeak ere egon diren. Azken hauek, taldeko partaideengandik informazioa lortzeko baino, haiei Tokiko Agenda 21en berri emateko balio izan dute. Elkarrizketatzailea bakarra izan da beti.

Udalerrri bakoitzean dozena bat elkarrizketa egin dira, ordubete eta bi ordu arteko iraupenarekin. Lau pertsonen artean burutu dira udalerrietako elkarrizketak.

Herri Batzarra egiteko egun, ordu eta lekuaren aukera udal ordezkarien esku utzi da, herritarren dinamika ezagutzen dituztenak direlako. Elkarrizketatu guztiei beren iritzia jasotzen dituen zutabe-ko informazioa etxera bidali zaie, Herri Batzarreko gonbitea luzatuz alkateak sinatutako gutunarekin batera. Modu honetan, Herri Batzarrean elkarrizketatuen parte hartzea bermatu nahi izan da.

Herritar guztiak ere deituak izan dira udaletxe-tik, etxez-etxe banatutako deialdi baten bidez. Bilerarako deialdiarekin batera, Diagnostikoan agertu diren gai esanguratsuenei buruzko informazioa bidali zaie, bileran zein gai landuko diren aurretik jakin dezaten. Herritarren motibazioan eragiteko, eta bilerara etorri nahi dutenei erraztasunak emateko, Herri Batzarrean ondoren jakia eta edariak izan dira, eta hurrei ere talde desberdin batean parte hartzeko aukera eman zaie.

Herri Batzarretan lan dinamika desberdinak erabili diren arren, bileratik etekin konkretuak ateratzeko, diagnostikoan antzeman diren gabezia eta ahulezien zerrendak erabili dira oinarri gisa. Herri Batzarretan egindako aurkezpenetan, elkarrizketetan azaleratutako gabeziak eta arazoak azaldu dira gehienbat, datu objektiboetako protagonismo gutxiago emanez, eta gerturatutako herritarrek gabezi eta arazo horiei buruz dituzten iritzia jaso dira.

Herri Batzarretan zein gai landu erabakitzeke, Diagnostikoko atal guztien artean, 6-8 aukeratu dira, Ekintza Planari begira partehartze eraginkorrena baimendu dezaketenak, hain zuzen ere. 6-8 gai hauek lantzeko, Herri Batzarrean herritarrak talde-ka banatu dira, eta talde bakoitzak 2-3 gai landu ditu, bestela bilera gehiegi luzatzeko arriskua baitago. Taldeko lanaren ondoren, talde guztien emaitzak azaldu zaizkie gerturatutako guztiei. Guzti hau posible izan da Herri Batzar bakoitzean 20-30 herritar izan direlako (kontuan izan 200-300 biztanle inguru dutela udalerririk).

## 5. ORAIN ARTEKO ONDORIO NAGUSIAK

– Landa eremuko berezitasunak direla eta, udalean astean behin bederen egonez, prozesua aurrera eramaten lagunduko duen teknikari bat erabat beharrezkoa da. Udal ordezkarien dedikazioa urria da udaletxeetan, eta teknikaririk ez balego, lan guztia udal langileen gain eroriko litzateke. Hala ere, teknikariaren irudia udalean izateak bere arriskua ere badu: arduradunek Tokiko Agenda 21ekin lotutako guztia pertsona horren gain uztea. Bestalde, teknikari honek ahalbidetzen duen herritarrenganako hurbiltzea lortzea ere erabat positiboa da prozesua aurrera ateratzeko.

– Bai herritarrek, bai udal ordezkariak, orokorrean, herria ongi ezagutzen dute, eta Diagnostikoan bildutako datu objektibo gehienak ezagutzen dituzte. Elkarrizketetan jaso diren iritziekiko interes handiagoa agertzen dute. Honela, herritarren ikuspegia diagnostikoaren mami bihurtzen da, bai eta Herri Batzarren oinarri nagusi ere.

– Orokorrean, ikusi da elkarrizketetan informazio oso baliagarri eta zabala lortu dela. Izan ere, Herri Batzarretan ez da elkarrizketetan lortutako informazioarekiko gabezia nabarmenik azaleratu. Beraz, iruditzen zaigu elkarrizketen kopurua nahikoa izan dela, eta elkarrizketatuak ondo aukeratu direla esateko moduan gaudela.

– Lau udalerrietan burutu diren Herri Batzarretan, herritarren hainbat kezka errepikatu dira: herriak zenbat eta nola hazi beharko luken gaiaren inguruko hausnarketa sakon baten beharra; herriko gazteek herrian bizitzen geratzeko dituzten zailtasunak, etxebizitzaren prezioa edo/eta eskasia dela eta; baserriaren gainbeherari lotuta dagoen herriko nor-tasunaren eta paisaiaren eraldaketari aurre nola egin; jarduera ekonomikoaren dinamismo urria dela eta, udal ekonomiari ekarpen eskasa, eta herritar gehienek herritik kanpo lan egin behar izatea; gizarte zerbitzuen eskaria gora doala ikusita, honi nola erantzun; herrian ikastetxea edo/eta haurtzaindegia izateko zailtasunak; herritarren beharrei egokitutako garraio publikoa ezartzeko oztopoak, eta honen ondorioz erabat errotua dagoen autoaren kultura; udalerrria zeharkatzen duten errepideen egoera kaxkarra, edo ibilbide desegokia; edo autoen abiadura azkarra.

– Hasiera batean, landa eremuko herrietan ingurumen arlokoak baino gizarte, ekonomia eta zerbitzu mailako gabeziak garrantzitsuagoak izan daitezkeen arren, herri hauetan ere badira ingurumenari loturiko arazoak. Arazo hauek ordea ikuspegi desberdin batetik landu beharrekoak dira, hirietako ikuspegiak ez du balio. Adibidez, aipatu den moduan, baserriko aktibitatearen beherakada dela eta, herri inguruko paisaian sortzen ari den aldaketarekiko ardura lau herrietan antzeman da.


– Azkenik, landa eremuko iraunkortasunak aurrean jartzen digun erronka nagusia, biztanleriaren dentsitateari lotutako zerbitzu, azpiegitura eta ekipamenduen horniduran datza. Dendak,

kutzazainak, kirol ekipamenduak, kultur ekintzak, haurtzaindegi eta ikastetxeak, osasun eta gizarte zerbitzuak, errepideak, garraio publikoa, saneamentuko azpiegiturak, energia eta uraren hornidurako azpiegiturak, telekomunikazioak, eta honelakoetak ari gara. Landa eremuan, biztanleriaren dentsitatea txikia da, eta etxebizitzaren dispersioa altua. Zaila suertatzen da bizi-kalitatean eragina duten zerbitzu, azpiegitura eta ekipamendu hauek landa eremuko herritarrei eskaintzea, eta are zailagoa da herritarrek horietara garraio publikoaren bidez gertura-

tzea. Iraunkortasunaren kontzeptua bera landa eremura egokitu beharko dugu, hortaz.

**BIBLIOGRAFIA OHARRAK**

INGURU CONSULTORES, S.A. *Tokiko Agenda 21 Euskadiko udalerrietan ezartzeko eta garatzeko gida praktiko*, 1. arg., Vitoria – Gasteiz: Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, 2000; 152 or.



1. Irudia